

# NO ROOM FOR GENOCIDE

genozidioari tokirik ez!  
¡no hay sitio para el genocidio!  
لا مكان للإبادة الجماعية  
le génocide n'a pas sa place!

[YALANAFARROA.COM](http://YALANAFARROA.COM)

Turismo-sektoreko anfitrioienezako, gizarte-  
mugimenduentzako eta gizarte zibileko taldeentzako  
antolaketa-tresnak

2026eko maiatza

**BDS** 

**YALA**  
**NAFARROA**  
con **PALESTINA**  
[yalanafarroa.com](http://yalanafarroa.com)

# Edukien aurkibidea

<b>1</b>	<b>Laburpen exekutiboa .....</b>	<b>2</b>
<b>2</b>	<b>Testuingurua .....</b>	<b>3</b>
<b>3</b>	<b>Zer dio nazioarteko zuzenbideak? .....</b>	<b>6</b>
<b>4</b>	<b>Zer pauso eman ditzakete negozio etikoek? .....</b>	<b>8</b>
	Jatetxeak, tabernak, kultur guneak .....	<b>8</b>
	Hotel-establezimenduak, kanpinak eta Landa Etxeak .....	<b>9</b>

# 1. Laburpen exekutiboa

Mundu osoan, Israelek Gazan egindako genozidioari amaiera emateko eta bere krimen lazgarriengatik erantzukizunak eskatzeko aldarriak gora egin du. Aldarri horiek honako hauetan jaso dira: NBEren Batzar Nagusiaren ebazpenetan; Nazioarteko Justizia Gortearen behin-behineko aginduetan eta iritzi aholku-emailean; Nazioarteko Zigor Gortean egiten ari diren ikerketetan; eta NBEko giza eskubideetan adituak diren pertsonen txosten eta gomendioetan, bai eta Palestinako eta giza eskubideen nazioarteko erakundeenetan ere, Israelek Gazan egiten ari den genozidioari eta okupazio militarren eta apartheid-aren legez kanpoko erregimenari dagokionez.

Zehaztapen horiek, nazioarteko zuzenbidearen arabera, betebehar juridikoak ekarri dizkiete hirugarren estatuei eta nazioarteko erakundeei. Bereziki, Israelek gerra-krimenak, gizateriaren aurkako krimenak (apartheid-a barne) eta genozidio "sinesgarria" egiteko konplizitate mota oro amaitzea. Horren barruan sartzen da hirugarren estatuek gerrako kriminalei pasabidea edo babesa ukatu eta krimenengatik auzipetu ditzaten bermatzeko erantzukizuna.

Estatuek erantzukizun hori betetzeko orduan nahita egindako arduragabekeriari aurre egiteko, eta Palestinako gizarte zibilak genozidiorako lekurik ez dagoela bermatzeko egindako deialdiari erantzuteko, hotel- eta turismo-sektoreko negozio txiki batzuk ekintza ausartak hartzen ari dira.

**Tresna-kit honek urrats multzo bat eskaintzen du. Printzipio etikoak dituzten turismo-sektoreko enpresek egin ahal izateko, Palestinatik egindako deia babesteko eta Israelek Gazan egindako genozidioagatik kontuak ematea bermatzeko. Ahalegin horiek garrantzitsuak dira, halaber, enpresa eta erakunde horiek giza eskubideekin, bakearekin, justiziarekin, irekitasunarekin, inklusioarekin, segurtasunarekin eta gizarte-erantzukizunarekin duten konpromisoa defendatzeko. Azkenik, dokumentu honek ahalegin horien oinarrian dagoen lege-testuinguru labur bat eskaini nahi du. Eta turismo etikoko negozioak, erakundeak eta mugimenduak dituztenak sare batetan konektatu nahi ditu, elkarrekin indartu ahal izateko.**

## 2. Testuingurua

BDSren Palestinako Batzorde Nazionala (BNC) gizarte zibileko koalizio palestinar handiena eta BDS mugimendu globaleko liderra da. Israelen genozidioan, zeina zuzenean transmititu baita, mundu osoko kontzientzia-pertsoneri dei egin die beren samina eta haserrea elkartasun esanguratsu batera bideratzeko. Elkartasun hori, ionarrean, konplizitateari amaiera emanez hasten da. Mendebalde kolonialaren konplizitate militar, finantzario, diplomatiko eta politikorik gabe, bereziki Estatu Batuena, Alemaniarena eta Erresuma Batuarena, Israelek ezin izango zuen genozidioarekin jarraitu, ezta 77 urteko erregimenari eutsi ere, asentamenduen eta apartheid-aren kolonialismoari, bertako herri palestinarren aurka.

Israelgo agintari politiko, kultural, akademiko, erlijioso eta enpresarial batzuek – batzuk Nazioarteko Zigor Gorteak gerra-krimenengatik eta gizateriaren aurkako krimenengatik jadanik bilatutakoak – esplizituki bultzatu dute herri palestinarren aurkako genozidioa. Adierazpen horien ondoren, eskala handiko ankerkeriak etorri ziren, Israelgo erasotzaile askok dokumentatuak eta sare sozialen eta telebistako elkarrizketen bidez publikoki ospatuak. Ospatze publiko lotsagabe hori eta indarkeria genozidaren gorespen hori asmo genozidaren froga dira. Halaber, estatuen, korporazioen eta erakundeen nazioarteko konplizitateari esker, Israelek hainbat hamarkadatan izan duen zigorgabetasunaren froga ere.

Nazioarteko Zigor Gortean egiten ari diren ikerketak, atxilotze agindu berriak aurreikusita, areagotu egin du Israelgo herritarren ekintzen kontu-ematea eta zaintza, bereziki krimen lazgarrien arduradun diren funtzionarioena (militarrak, politikoak) eta Israelgo Erregimenaren ordezkariak, krimen lazgarrien erantzule edo konplizeak. Testuinguru horretan, gure espazio publiko eta komertzialetan (hotelak, ostatuak, tourrak eta itsas bidaiak, kafetegiak, jatetxeak, museoak eta dendak, besteak beste) ustezko gerra-kriminal israeldarrak egoteak kezka etikoak, legezkoak eta segurtasunekoak sortzen ditu.

Ustezko delitugileei ostatu emateak edo zerbitzatzeak nazioarteko zuzenbidea defendatzeko eta zigorgabetasunari aurre egiteko ahaleginak ahultzen ditu. Giza eskubideekiko, bakearekiko, justiziarekiko, gardentasunarekiko, inklusioarekiko, erantzukizun sozialarekiko eta segurtasunarekiko konpromisoak ere ahultzen ditu. Mundu osoko hotel eta jatetxeen jabeen ekintza ausartak ikusi ditugu. Palestinarren eskubideak defendatu dituzte, eta uko egin diote gerrako kriminalak izan daitezkeen israeldarrekin lanean jarraitzeari, ezer gertatuko ez balitz bezala. Hotel-negozioetako langile eta jabe asko protesta egin zutenen artean zeuden, eta Israelgo itsas bidaiak, gehienak soldadu israeldarrak zeramatzatenak, beren portuetan sartzea eragotzi zuten.

Premiazkoa da ahalegin horiek Palestinako gizarte zibilaren eskaerekin eta nazioarteko zuzenbidearekin bat etorri zabaltzea eta koordinatzea, gerrako kriminalei kontuak eskatzeko eta justizian, erantzukizun sozialean eta konplizitatearen arbuioan oinarritutako turismo etikoa sustatzeko

Gidalerro hauek tresna zehatzak eskaintzen dituzte Estatuak presionatzeko zigorgabetasuna amai dezaten eta mugetan ustezko gerra-kriminalak atxilotzen has daitezzen, espazio eta zerbitzuetara sartzen utzi beharrean. Horrek ez du esan nahi erregimen migratzaile bortitzak eta arrazistak indartu behar direnik, dagoeneko pertsona pobretuei, errefuxiatuei, migratzaileei eta arrazializatuei erasotzen dietenak. Aldiz, krimen izugarrien erantzuleak babesten dituen estandar bikoitzari aurre egiteko deia da. Kontuak emateari buruzko eztabaida horiek turismoa lurra, lana eta bizitza ustiatzen dituen eta Hego globaleko egitura kolonialak indartzen dituen industria gisa ulertzean oinarritu behar dira.

**Gerrako kriminalei mugak gurutzatzea ahalbidetzen dien zigorgabetasunari aurre egiteko ahaleginaren zati gisa, establezimenduek eta gune turistikoek neurri proaktiboak hartu behar dituzte pertsona horiei zerbitzuak ukatzeko. Gerra-krimenen eta giza eskubideen urraketen konplizeei erantzukizunak eskatzeko deia egiten diegu, eta ez beren nortasunaren seinalatzeko.**

Tresna-kit honek zenbait iradokizun eta neurri eskaintzen ditu ostatuak, bidaia-konpainiek, itsas bidaiek, jatetxeek, kafetegiek eta turismoarekin lotutako beste establezimendu edo zerbitzu batzuek honako hauek egin ditzaten:

- Israelek Gazan egiten duen genozidioaren aurka dauden turismo-establezimenduetan ostatu hartzeko **asmoa kentzea Israelgo ustezko gerra-kriminali.**
- Israelgo ustezko gerra-kriminali produktu edo zerbitzuen **eskaintza ahultzea.**
- Booking, Airbnb eta antzeko bidaia eta **erreserba plataformen konplizitatea agerian uztea**
- **Estatuei exijitzea** bisatu-betebeharrak (hautaketa-prozesu eraginkor bat barne) ezar ditzatela Israelgo nazionalentzat eta eskala handiko nazioarteko krimenak egiten ari diren estatuetako beste herritar batzuentzat

Jarraian, hainbat motatako establezimendu eta zerbitzu turistiko eta hoteletarako iradokizunak aurkezten ditugu. Zure kontsulta eta iruzkinengatik **yalanafarroanoroom@protonmail.com** helbidean, mila esker.



# 3. Nazioarteko legeak zer dio?

Ius cogens\* arauak, nazioarteko zuzenbidearen oinarriko printzipioek, betebeharrak lotesleak ezartzen dizkiete estatu guztiei nazioarteko krimenei dagokienez, genozidioa, gerrako krimenak, gizateriaren aurkako krimenak, arraza-segregazioa, apartheid-a eta tortura barne. Arau horiek aginduzkoak, unibertsalak eta indargabetezinak dira, eta horrek esan nahi du estatuak behartuta daudela arau horiek urratzea prebenitzera eta zehatzera, baita jurisdikzio unibertsala erabiliz ere. Horrek estatuei ezartzen die delitu horiek egiten dituztenak ikertzeko eta epaitzeko betebeharra, delitu horiek non egin ziren edo naziotasuna edozein dela ere. Jurisdikzio unibertsala egikaritzeko betebeharra honako honetan oinarritzen da: zenbait krimen hain dira lazgarriak, ezen gizateria osoari eragiten baitiote, eta ekintza horiengatik zigorgabetasuna ez dute immunitate politikoek lagundu behar, ezta konturik eman gabe mugak zeharkatzeko aukerak ere. Krimen horiek auzipetu eta baztertu egin behar dira mundu osoan.

Nazioarteko legearen arabera betebeharrak juridiko horiekin bat etorritik, eta Palestinako gizarte zibilak eskatzen duen bezala, estatuak ikertu eta, hala dagokionean, auzipetu egin behar dituzte kategoriatan hauen batean dauden pertsonak – turistak barne –:

1. 2023ko urriaren 7tik Israelgo armadan zerbitzatu duen edozein pertsona, edo alde aurretik parte hartu duena, edo Israelek palestinar herriaren aurka egindako krimen lazgarrietan parte hartu izanaren arrazoizko susmoa duena\*\*. Hor sartzen dira unitate logistiko eta inteligentetan zerbitzatu zutenak.
2. Gerrako krimenak, gizateriaren aurkako krimenak edo genozidioa egiten laguntzeko edo beste edozein modutara laguntzeko arrazoizko susmoa duen edozein pertsona, soldadutzan egon ala ez.
3. Gerra-krimenak, gizateriaren aurkako krimenak edo genozidioa edozein unetan egitera publikoki bultzatzeagatik zentzuz susmagarri den edozein pertsona, dela soldadutzan, dela zibil gisa.

---

\* *Ius Cogens nazioarteko zuzenbidearen urrezko arauak dira. Herrialdeek ezin dituzte urratu, ezta borondatezko akordioen bidez ere. Gizadi osoaren funtsezko balioak babesten dituzten arauak dira. Adibideak: torturaren debekua; esklabotzaren debekua; erasoaren debekua; genozidioaren debekua; determinazio aserako eskubidea; apartheidaren debekua.*

\*\* *Nazioarteko Justizia Gortea, 2024ko urtarrilaren 26a, Behin-behineko neurriak 192. kasuan - Gazako Zerrendan Genozidio Delitua Prebenitzeko eta Zigortzeko Konbentzioaren aplikazioa (Hegoafrika Israelen aurka) 2024ko urtarrilaren 26ko Ebazpena.*

Gainera, Israelen bizi edo lan egiten duen edozein pertsonak, bai israeldarrak bai nazioartekoak, eta Israelen legez kanpoko okupazioari laguntza materiala ematen dionak – Israelen legez kanpoko asentamendu kolonialak barne, Palestinako lurralde okupatuan (PLO), Ekialdeko Jerusalem barne, edo Siriako Golango gainetan okupatuak –, jakinaren gainean parte hartzen du gerra krimen batean, eta, beraz, kontuak eman behar ditu. Asentamenduen legez kanpoko politika aplikatzen dutenak, baita palestinarren eta palestinarren aurkako erasoak egitearen erantzule edo susmagarri diren kolonoak ere, kontuak emateko prozesuetan sartu behar dira. Era berean, kolonoek egitura hori mantentzeko eta normalizatzekeo duten zeregina zapalkuntzako makineria zabalaren zati gisa ikusi behar da.

**Irakurri eta egokitu BDSren Palestinako Batzorde Nazionalaren immigrazio-politikei buruzko informazio-dokumentua**, bere gobernuari presioa egiteko, nazioarteko zuzenbidepeko betebeharrak betetzen direla bermatzeko.

**Oharra:** *Establezimendu eta enpresa bakoitzak testuinguru desberdinetan jarduten du, eta erronka mota desberdinei egin diezaieke aurre. Zuzenbidean adituak diren pertsonen kanpaina honen alde egitea gomendatzen dugu, eta, gainera, jurisdikzio bakoitzeko legeriarekin ohitutako abokatuen orientazioa bilatzea, beren enpresa edo proiektuarentzat ekintza markorik onena zein den zehazteko. Lege-aholkularitza eskuratzea bereziki garrantzitsua da erreakzio negatibo posibleei erantzuteko, zure negozioa parte izan daitekeen erreserba-plataformen presioa barne.*

*2025. urtearen amaieran, Eskubide Sozialen, Kontsumoaren eta 2030 Agendaren Espainiako Ministerioak nazioarteko zazpi turismo-plataformari eskatu zien 138 okupatutako eremuetako ostatu-iragarki kentzea.*

*2026ko otsailaren hasieran, Kontsumok iragarri zuen etxebizitza turistikoaren hainbat plataformek okupatutako lurralde palestinarrerako ostatuak 100 iragarki baino gehiago kendu zituztela, 2025ean zazpi plataforma nagusi seinatzen zituen ikerketa baten ondoren. Bustinduy ministroak iragarri zuen zazpi plataformetatik SEIK ez dutela ostaturik eskaintzen Palestinako Lurralde Okupatuetan (PLO). BDSk PLOn lan egiten jarraitzen dutela uste duen plataformen aurkako presioa mantendu egingo da. Booking.com, Airbnb, Expedia, TripAdvisor, Viator, eDreams eta Skyscanner-i eskaintzak erretiratzea eskatu zitzaion.*

# 4. Enpresa etikoak, zer neurri har ditzakete?

- **Jatetxeak/Kafetegiak eta Tabernak/Kultur Guneak (antzokiak, kontzertu-aretoak, museoak, arkeologia-guneak, etab.)**

## 1. Bat egin **NO ROOM FOR GENOCIDE** kanpainarekin!

Hona hemen zuen enpresa edo erakundea kanpainara batzeko jarraitu beharreko urrats batzuk. Har ezazue horietako bat edo gehiago, borondatez eta mailaz maila. Gutxieneko urratsa: jarri **NO ROOM FOR GENOCIDE** kartela eta **SARRERA** kartela zure establezimenduko ate edo hormetan eta ikuspen-espazioetan.

## 2. Bat egin **Apartheid Espazio Libreen (AEA)** kanpainarekin!

Apartheid Espazio Libre (AEA) izendatzen diren ehunka kafe, jatetxe, kultur gune eta bestelako establezimenduekin bat egitera gonbidatzen zaituztegu. Gune horiek konpromisoa hartzen dute Palestinako giza eskubideen urraketetan inplikaturako enpresa israeldarrei edo nazioartekoei produkturik edo zerbitzurik ez erosteko edo saltzeko. BDSren Palestinako Batzorde Nazionala (BNC) Palestinako gizarte zibilaren koaliziorik handiena da, eta BDSren mugimendu globalaren buru da. BNCK ezarritako lehentasunezko helburu korporatiboak izan daitezke abiapuntua.

AEAk konpromisoa hartzen dute palestinarren jarrerak eta eskubideak errespetatzeko eta mundu osoan espazio aurrerakoi eta intersektionalak sortzea sustatzeko, Israelgo genozidio, apartheid eta asentamenduen kolonialismoaren sistema arbuizatzeko eta justiziaren eta berdintasunaren aldeko borroka ugariak batzeko.

**Goraka doan kanpaina honekin bat egiteko moduari buruzko info gehiago hemen: <https://bit.ly/bds-ela>**



# ● Ostalaritza-establezimenduak (landa etxeak, hostelak, hotelak, ostatuak, bidaiia-agentziak edo itsas bidaiak)

## 1. NO ROOM FOR GENOCIDE kanpainarekin bat egin!

Hona hemen zuen enpresa edo erakundea kanpainara batzeko jarraitu beharreko urrats batzuk. Har ezazue horietako bat edo gehiago, borondatez eta mailaz maila. Gutxieneko urratsa: jarri **NO ROOM FOR GENOCIDE** kartela eta **SARRERA** kartela zure establezimenduko ate edo hormetan eta ikuspen-espazioetan.

## 2. Bake Babeslekuak ekimenarekin bat egitea

**NO ROOM FOR GENOCIDE** kanpainaren barruan, hotel-establezimenduei, hala nola apartamentu/etxe pribatuei, ostatuei, hotelei, ostatuei, bidaiia-agentziei, gurutzaldiei eta bestelako turismo-proiektuei, honako adierazpen hau atxikitzeko gonbita egiten zaie. Adierazpena jendaurrean aurkeztu dela jakinaraziko zaie atxikitako bake-babeslekuei, sinatzaileen gutxieneko kopurua lortu ondoren.

*Hemen, (bete ezazu negoziaren izena, hiria eta herrialdea)-n, gure bezero guztientzako espazio abegikor, seguru eta inklusibo bat sortzen eta sustatzen ahalegintzen gara. (Negoziaren izena) jatorri guztietako pertsoneri irekita dago, eta aniztasuna gure nortasunaren zati integrala da.*

**Bake Babeslekuak ekimenaren barruan, honako konpromiso hauek hartzen ditugu:**

- Giza eskubideak errespetatzea
- Turismo iraunkorra eta ekologikoa praktikatzea eta sustatzea
- Arrazakeria, sexismoa edo bestelako diskriminaziorik ez onartzea.
- Gerra-kriminalak, jazarleak, arrazistak eta abar diren susmagarriekin negoziarik ez egitea. .
- Gure langileekiko, gure instalazioekiko, gure tokiko komunitatearekiko eta bertako kulturarekiko errespetua bermatzea.

*Turismo etikoaren balioan sinesten dugu, tokiko komunitateen interesei lehentasuna ematen dielako eta kultura-truke esanguratsuak eta esperientzia pertsonalak bultzatzen dituelako. Balio horiek egia bihurtzeko, negoziatzeko dira bakea eta gure gizatasun partekatuarekiko eta giza eskubide unibertsalekiko errespetua, palestinarren eskubideak barne.*

- **BAKE-BABESLEKUAK** ekimen honetan parte hartzeko, bidali zure erakundearen edo enpresaren eskaera-orria [info@bdsmovement.net](mailto:info@bdsmovement.net) helbidera, (kopiarekin [yalanafarroanoroom@protonmail.com](mailto:yalanafarroanoroom@protonmail.com) helbidera), "Bake-babeslekuak" gaiarekin.

- **BAKE-BABESLEKUAK** kanpainarekin bat egin hemendik:

<https://sanctuariesofpeace.org/es/>

### 3. Zure enpresa/erakundea online erreserben plataforma monopolistiko baten barruan baldin ba dago:

**Zure enpresa/erakundea Booking.com barruan badago**, erreserba egin ondorengo baieztapen-mezu elektronikoa erabiltzea gomendatzen dizuegu, Palestinarekiko elkartasuna adierazteko. Mezu honek informazio logistikoa eta etxeko arauak azaltzen ditu, eta bere jarrera baieztatzen duen mezu labur bat ere izan dezake. Horrek zuen jarrera berresteko eta -alde batetik, ongietorria emango lieke hainbat jatorritako apopiloiei, -eta beste aldetik ustezko gerra kriminalak uxatuko lituzke.

Hona hemen posta elektronikoan erabiltzeko iradokitako testu bat:

Jabetza honek **NO ROOM FOR GENOZIDE** kanpaina babesten du, eta diskriminazioa eta abusu arrazistak, etnikoak, sozialak eta bestelakoak jasaten dituzten komunitateen askatasuna eta giza eskubideak errespetatzen ditu. Ongietorri beroa egiten diegu palestinarrei, errefuxiatuei, zapalkuntzaren aurka modu baketsuan dauden guztiei eta nazioartean onartutako eskubideen alde borrokatzen direnei.

Erreserba horien bidez lortutako diru-sarreraren ehuneko bat UNRWari (Palestinako Errefuxiatu Populaziorako Nazio Batuen Agentzia Ekialde Hurbilean) edo Palestinako herriaren eskubideak eta duintasuna babesten dituzten ongintzako edo giza eskubideen aldeko beste erakunde batzuei eman diezaiekezu, eta horren berri eman ostalariei zure mezuan.

**Booking.com konplizitateari buruzko aurrekariak:** marka hori Israelek Palestinako giza eskubideak urraketa larrietan konplize gisa ongi ezaguna da. **Legez kanpoko kolono israeldarrei aukera ematen die ostatuak iragartzeko lapurtutako lur palestinarretan, nazioarteko zuzenbidea eta herri palestinarren oinarrizko eskubideak espreski urratuz.**

Aktibistek eta enpresako langileek behin eta berriz eskatu dute Israelgo asentamendu ilegalen konplizitate horren amaiera, komunitate indigena palestinarren garbiketa etnikoa ahalbidetzen baitu. (Kanpainari buruzko informazio gehiago: <https://act.progressive.international/booking/>).

Gainera, enpresak egoitza duen Herbehereetako erakundeek ere salaketa penala jarri dute konpainiaren aurka, Israelgo gerra krimenen onuradun izateagatik.

**Booking.com-ek jabetza-iragarki bakoitzerako emandako testua zorrotz kontrolatzen du.** Bereziki Tel Aviveko bulegoaren bidez, modu aktiboan gaitzesten du giza eskubideen aldeko adierazpen irekia, bereziki palestinarren eskubideak, jabetzei buruzko deskribapen eta irudietan.

## **Zure enpresa/erakundea Airbnb barruan badago eta ezin bazara erraz aldatu plataforma etikoago batera, Booking.com-en antzeko mezu bat erabiltzea iradokitzen diegu.**

*Anfitrionioak zarenez, giza eskubideen alde zaudela adieraz dezakezu, Palestinako herriarenak barne, jabetzaren deskribapenean. Inklusioari buruzko mezu positibo bat, ziurrenik, enpresak ez du blokeatuko, eta ustezko gerra-kriminalentzako disuasio-elementu gisa balio dezake.*

*Bezero berriei iritzia emateko iradokitako testua:*

*Jabetza honek **NO ROOM FOR GENOZIDE** kanpaina babesten du, eta diskriminazioa eta abusu arrazistak, etnikoak, sozialak eta bestelakoak jasaten dituzten komunitateen askatasuna eta giza eskubideak errespetatzen ditu. Ongietorri beroa egiten diegu palestinarenei, errefuxiatuei eta zapalkuntzaren aurka modu baketsuan borrokatzen duten eta nazioartean onartuta dituzten eskubideen alde borrokatzen duten guztiei.*

*Erreserba horien bidez lortutako diru-sarreraren ehuneko bat UNRWari (Ekialde Hurbileko Palestinako Errefuxiatu Populaziorako Nazio Batuen Agentzia) edo Palestinako herriaren eskubideak eta duintasuna babesten dituzten ongintzako edo giza eskubide fidagarriko beste erakunde batzuei eman diezaiekete, eta gaur egungo edo etorkizuneko bezeroei horren berri eman.*

*Airbnb konplizitateari buruzko aurrekariak: Airbnb-k paper garrantzitsua izan du mundu osoko auzoen gentrifkazioan, eta Israelek okupatutako lurralde palestinarrean legez kanpo dituen asentamenduen konplize ere bada. Booking.com bezala, Airbnb-k Palestinako lur lapurtuetan legez kanpoko asentamenduak argitaratzeko aukera ematen du. 190.000 pertsona baino gehiagok eskaera bat sinatu dute konpainiari presio egiteko legez kanpoko asentamenduekin irabaziak izateari utz diezaion, nazioarteko zuzenbidearen arabera gerra krimena baitira. Airbnb-k legez kanpoko asentamenduetako jabetzak bere zerrendetatik kentzea erabaki zuen, baina urtebete geroago erabakia atzera bota zuen.*

### **Turismo-zerbitzuen erabiltzaileek zer egin dezakete?**

Zuen dirua Booking.com, Airbnb, Expedia eta antzeko enpresa turistiko konplizeetan gastatu nahi ez ba duzue: boikota iezaezue haien zerbitzuei, ahal duzuen beste. Booking.com Israelgo apartheid-aren konplize eta onuragarri nola den gehiago jakin daiteke (10. orriko esteka), eta haren konplizitatea amaitzea eskatzen duen kanpaina babestu.

Aholku praktikoa: bilatu propietateak Booking.com, Airbnb, Expedia eta beste plataforma batzuen bidez, baina egin erreserbak zuzenean ostatuaren webgunearen bidez.



#### 4. Bezeroei erantzukizunpeko adierazpena eskaria:

Hurrengo orrialdean, bezeroen **erantzukizunpeko adierazpena** eskatzen duen inprimaki eredu bat aurkituko duzue, gerra-krimenetan, gizateriaren aurkako krimenetan edo genozidioan parte hartu ez dutela bermatzeko. Inprimaki hau Kyotoko (Japonia) ostatu batek, Wind Villa Hostel, prestatu eta zabaldu zuen.

Honako irizpide hauek iradokitzen ditugu **behar bezalako arreta, hautaketa eta ikerketa** prozesuaren helburua erabakitzeko:

**Baldintza hauek betetzen dituen edozein pertsona:**

- **Genozidioa, gerra-krimenak edo gizateriaren aurkako krimenak egin izanaren zantzuak dituen estatu bateko nazionala izatea** (Nazioarteko auzitegi eskudunen jarduketek edo giza eskubideen nazioarteko erakundeen txosten publikoek edo aitortutako babes-mekanismoek babestutako zantzuak);

- **Eta ekintza horien aldiaren estatu horretako indar armatueta zerbitzatu izana.**

*Erantzukizunpeko adierazpen hau erabiltzea gomendatzen dugu, baldin eta ostatuaren jabeek jarrera irmoa badute bakarrik eta ekintza horrek legezko kexak eta ondorioak eragin ditzakeela jakinda, baldin eta erabiltzailearen batek "diskriminazioagatiko" edo antzeko arrazoien salaketaren bat egiten badu.*

## **GERRAKO KRIMENETAN EDO GIZA ESKUBIDEEN BESTE URRAKETA LARRI BATZUETAN PARTE HARTU EZ IZANAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA\***

Honen bidez, honako hau adierazten dut:

1. Ez dut inoiz giza eskubideen urraketa larririk egin, ezta horretan lagundu ere.

2. Ez dut inoiz parte hartu gerra-krimenak, gizateriaren aurkako krimenak edo genozidio-ekintzak egiten; adibidez:

- Zibilen aurkako eraso bortitzak, hilketa, sarraskia, nahitaezko lekualdaketa, tortura, behartutako gosea, esklabotza, bortxazko desagerpena edo jazarpena barne.
- Presoak torturatzea, tratu ankerra ematea edo hiltzea.
- Ondasunak arpilatzea edo bereizi gabe suntsitzea.
- Bortxaketa edo bestelako sexu-indarkeriak.
- Nazioarteko Zigor Gortearen Erromako Estatutuaren 8. artikuluan (gerrako krimenak) jasotako beste edozein egintza.

3. Ez dut inoiz gerra-krimenak, gizateriaren aurkako krimenak edo genozidioak planifikatu, ordenatu, lagundu edo egitera bultzatu.

### **Adierazpen hau betetzen duen edonori eskatzen zaio:**

**A. Genozidioa, gerra-krimenak edo gizateriaren aurkako krimenak egin izanaren zantzuak dituen estatu bateko pasaporteaz izatea** (Nazioarteko auzitegi eskudunen jarduketek edo giza eskubideen nazioarteko erakundeen txosten publikoek edo aitortutako babes-mekanismoek babestutako zantzuak);

**B. eta estatu horretako indar armatuetan zerbitzatu izana** aipatutako urraketak egin izana leporatzen zaion aldi batean; edo arrazoiz susmatzea gerrako krimenak, gizateriaren aurkako krimenak edo genozidioa egiten lagundu, lagundu edo konspiratu duela edozein unetan, soldadutzan egon edo ez; edo susmo arrazoizkoa hartzea gerra-krimenak, gizateriaren aurkako krimenak edo genozidioa egitera publikoki bultzatzean parte hartu duela, edozein unetan, zerbitzu militarrean edo ez.

\* GOMENDIO GARRANTZITSUA: Ostalaritzako edozein negoziok adierazpen mota honetan erabiltzen duen hizkera zehatza, eta bezeroei nola aurkeztuko zaien, tokiko abokatuek aholkatu beharko lukete, Estatuko eta autonomia-erkidegoko legeriarekin bat datozela bermatzeko. Hemen aurkeztutako adibideak orientabide gisa baino ez du balio.

## Objetivos de Boicot Prioritarios para el Movimiento BDS



### Objetivos de Presión para el movimiento BDS



### Boicot Orgánico apoyado para el Movimiento BDS



Septiembre 2025

**BDS**

### \*NO ROOM FOR GENOCIDE / KANPAINA GLOBALA:

<https://bdsmovement.net/es/resources/No-Hay-Lugar-para-el-genocidio-herramienta>

### NO ROOM FOR GENOCIDE / KANPAINA NAFARROA:

[YALANAFARROA.COM/NO-ROOM](https://yalanafarroa.com/no-room)

Tresnako karpeta: [labur.eus/noroom-kit-yala](https://labur.eus/noroom-kit-yala)

Kanpainako e-posta: [yalanafarroanoroom@protonmail.com](mailto:yalanafarroanoroom@protonmail.com)

TURISTA GISA, KENDU @BOOKINGCOM ETA @AIRBNB ZURE EKIPAJETIK:

<https://actionnetwork.org/petitions/e70360edd4e2a336ac560838d6fc5e425373f140>

**BDS**

ASKATASUNA  
JUSTIZIA  
BERDINTASUNA

**YALA**  
NAFARROA  
con PALESTINA  
[yalanafarroa.com](https://yalanafarroa.com)